

## **Balioa:**

Gaur egun munduko arazorik handienetarikoa plastikoak dira, konkretuki, [Greenpeacen](#) arabera, itsasoan 12 milioi tona plastiko daude eta beste hainbat milioi tona munduan ere. Gainera, hainbat herrialdek, adibidez Espainak, plastiko hondakinak beste herrialde pobre batzuetara bidaltzen dituzte, zehazki Malasiara. Egoera hau ikusita, ikusi dugu erreziklapena beharrezkoa dela eta, horregatik, gure enpresa beharrezkoa da, gehienbat, egoera hau hobetzeko.



Gure enpresaren erreziklapen sistema Alemania eta Norvegiatik ekarri dugu han oso erantzun onak izan dituztelako. Ontzien Merkatu Azterketarako Elkartearen txosten baten arabera, 2015ean Alemanian PET botila guztien ehuneko 93,5 birziklatu zen. Gordailu bat uzten dute botilen kasuan eta kopurua ehuneko 97,9ra ere iritsi zen. Hori dela eta, Espainian horrelako kantitateak birziklatzea asko lagunduko zuen.

Momentuan dagoen plastiko erreziklapen sistema honetan Espainiak plastikozko ontzien % 25-a baino ez du berreskuratzen [Greenpeacen](#) arabera. Gure sistemak berriz, beste herrialde batzuetan, esate baterako, Norvegian, % 80 eta % 90 artean birziklatzen da.